ESKABIDEARI ERANTSITAKO AGIRIAK

ETXEBIZITZA BERRIETARAKO LEHEN ESKAERA

1.- OBRA AMAIERAKO ZIURTAGIRIA.

Jatorrizkoa aurkeztuko da, obra zuzendu duten teknikariek sinatua eta haien lanbide elkargoek ikus-onetsia.

2.- LEHEN ALDIZ ERABILTZEKO UDAL LIZENTZIA.

Jatorrizkoa edo Udalak konpultsaturiko fotokopia. Lehen aldiz erabiltzeko lizentziarik ematen ez den udalerrietan, horren ordez obra lizentzia aurkeztuko da.

3.- OBRA AMAIERAKO PLANOAK.

Etxebizitza Zerbitzu honek txostena egin eta gero proiektuan aldaketak egiten diren kasuetan soilik. Planoetan gelen azalerak eta etxebizitzaren azalera osoa agertuko dira. Proiektuaren egilearen lanbide elkargoak ikus-onetsita egonen dira.

4.- ERAIKINAREN LIBURUKO DATU OROKORREN FITXA SINATUAK

Fitxa sinatuak aurkeztuko dira, urriaren 2ko 322/2000 Foru Dekretuan eta urriaren 30eko 1217/2000 Foru Aginduan xedatutakoarekin bat. Erabiltzaileak berak sustaturiko familia bakarreko etxebizitzetan, fitxen ordezko agiria aurkezten ahal da, irailaren 24ko 1106/2001 Foru Aginduaren arabera.

5.- POSTA HELBIDEAREN ETA KATASTROKO DATUEN UDAL ZIURTAGIRIA

Datu horiek udal lizentzian ageri ez diren kasuetan soilik aurkeztu beharko da ziurtagiria.